



n, eta, halantxe, danetarik erosteko aukera
nenak agertzen dira.

go hurreratu da eta garraioagaz ez da arazo handirik izan. Apar-kalekuak izan dira. Halandabe, jenteak herrigunean bertan itxi gura dau autoa».

Era berean, nekazari produktuen kalitatea be «oso ona» izan dala ganeratu eban. «Aitatu, besteak beste, ortuariak be inoiz baino gahiago ekarri dirala», inoen udal arduradun nagusiek. Ferian izandako abereek, ganera, aurton, bestetan baino neurri gehiago pasatu behar izan ebezan. «Hori dala-eta zaldi gitxiago izan dira. Halandabe, orokorrean maila ona nagusitu da», inoan Uriartek.

Goizaldera arte, jaia

Feria amaituta, arrastian be izan zan girorik. Gazte jentearen presentzia nabarmeduz joan zan. Besteak beste, 16:00etatik 20:00etara Musutruk taldeagaz erromeria izan zan. Goizaldera bitartean jai giroan irauteko aukerarik ez zan falta, atzo, Abadiñon. Gau-gauerako, Ene Bada! taldeagaz iragarrita egoan erromeria...

CARLOS IBARRONDO ABELTZAINA

«Urteetan, igaz batez be, tratu asko egin doguz, aurton, jentea desanimatuta dago»

AB |

IX. Abelburu erakusketan 210 bat buru izan dira. Horreen artean, 100 bat limousina. Azken 7 urteotan San Blas egunera etorri da Elorriotik, Carlos Ibarrondo. Orain artean, igaz batez be, tratu asko egin zituan, halandabe, aurton, «jentea nahiko desanimatua» egon dala dino.

■ Traturik egin dozue aurton?

San Blas feria, sano ona da. Izanbe, Euskal Herri osoko abelburuak etorten dira. Urteetan, batez be igaz, tratu asko egin genituen. Halandabe, aurton, jentea nahiko desanimatuta egon da. Dana dala,

goiza pasa artean traturen bat egitea espero dogu. Ez ohikoa da aurton gertatutakoa. Abeltzainak nahiko galduta gagoz. Ez dakigu nora jo, ezta zer gertatuko dan...

■ 'Behi-eroen' gatxa dala-eta sortu da nahasmena abeltzainen artean.

Bai. Guk betiko moduan zaintzen doguz abelburuak eta azken asteotan hartutako erabagiak ez dakigu nora jo. Halandabe, nik limousina saltzen dot. Genetika da saltzen dodana. Baserritarrei behi eta idiskoak saltzen deutesieez. Hori dala-eta ez nau zuzenean eragiten. Eurek euren okela baloratzeari guretzat hobeto da, baina..

■ Gatzak izan dau eraginik salmentetan, aurton?

Bai. Kontsumitzaileen artean bada halako alarma. Horretan, nire ustez, komunikabideek izan dabe eraginik. Objektiboki lantzen danik ukatu bari, informazio asko eta hainbat lekutatik jasoten da. Horrek badauka eraginik kontsumitzaileagan. Halandabe, aitatu, abere koipeak esaterako, hainbat produktutan dagozala, eta horreek ez dabe horrenbeste neurri pasatzen. Guk, barriz, bai..

■ Neurri handiak bete behar dozuez?

Bai. Kontrol handia dago, eta hori igarten da. Aitatu, Euskal Herrian, bertako okelaren



INIGO AZKONA

% 30 kontsumitzen dala gaur egun. Orain, barriz, bertoko okelaren prezioak igon egin dau. Harakinek be bertoko abeltzainengana jotzen dabe haragi bila. Orain artean, hemengo okela eta kanpoko bereiztu guran jardun dogu, eta orain arte lortzen ez zana, oraintxe lortu da.



INIGO AZKONA

SALMENTAK. Astegoiena izateak eta eguraldi ederrak jentetza handia erakarri dauana argi eukien ekoizleek. Halandabe, salmentak ondo joan ziran arren, azken urteakaz alderatuta, alde handirik ez dala egon azaldu eben hainbat saltzailek.



INIGO AZKONA

BEHIA, ZORO. Ez da harritzekoa, baina, horrenbeste jenteren artean abere koitaduak gurago izatea beste edonon egon.



INIGO AZKONA

ZALDIAK BE BAI. Abelburu erakusketaz aparte, zaldia, pottokak, astoak zein idiak ikusterik be izan eben bisitariek.